

**ERREPORTAJEA FRANTZIAKO TOURRA IKUSTERA JOATEN DIREN ELGOIBARTARRAK  
MOTZAK GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK OSPATU ZIREN ELGOIBARREN**

# BARREREN

ASTEKARIA



***Denok Tourrera!***

ELGOIBARREREN ASTEKARIA . 2004ko uztailearen 9a/XII. urtea/496. zkia



# ASKETA

## ERREFORMAK, S.L.

Gremioen zuzendaritza

Salmenta zuzena gremio eta partikularrentzat



Arkitektua ● Aparejadorea  
Dekoratzaileria ● Igeltserotza  
Elektrizitatea ● Iturgintza  
Pintura ● Leihoak

Klimatizazioa ● Igogailuak  
Metal arotzeria ● Zureria  
Barrualdeen dekoratzaileria  
Eguzki energia



**Aurrekontuak konpromisorik gabe**

Erakusketa eta bulegoa

Maxpe, 3 behea ● 20820 DEBA

Tel.: 943 19 19 52 ● Faxe: 943 19 24 60

E-posta: asketa@telefonica.net ● [www.asketa-reformas.com](http://www.asketa-reformas.com)





## Udalaren azken debeku miresgarriaren inguruan:

Niri gaztetxoek kalean alkohola edatea ongi iruditzen zait: kalea guztiona da, eta parrandarako zein edozein ekintza ludiko egiteko lekuri aproposena derizot. Nerabe nintzenez koadrilakoak tabernaz taberna ibiltzen ginen, gure poltsikoen neurriara egokitzen zen ardo merkea edaten: zapore txarra zuen baina... orduko alkateak ere udaltzainak tabernetako ateetan jarri zituen karnet eske...aspertu eta guztia lehengora itzuli zen arte.

Alkoholak eta drogek orokorrean, neurrian hartuta, garunari kalte baino mesede gehiago egiten diotela uste dutenetakoa naiz: zergatik kontsumitzen ditugu bestela? Jendea ezagutu, lagunak egin, tentsioak askatu... munduari angelu desberdin batetatik begiratzeko balio dute, eta inork ez dit ukatuko hori osasungarria ez denik!!

Guk ardoa bezala, gaurko gazteek Litroak egitea aukeratu dute gizarteratzeko eta dibertitzeko tresna bezala: merkeagoa da, eta ziur aski, zapore gozoagoa izango du... gazteen ekimenak bultzatzea, eta bide honetatik ongi pasatzeko beste ekintza batzuk eskaintzea izan liteke aukera bat. Zinez diotsuet, guztiok badakiguna: hobe lukete udaltzainek asteburuetan herriko kaleak Jaramako zirkuitua dela sinistuta dabilzan horiei neurria hartzen ibiltzea... inori etxeko leihotik lorontzi bat haien gainera "erori" aurretik.

Lorea Perez de Albeniz



## Herriko Etxeen eguna, Azkainen

Joan den ekainaren 19an, Herriko Etxe euskaldunen eguna antolatu zuen Euskal Konfederazioak, Azkainen. UEMAK eta Azkaineko Herriko Etxeak lagunduta, Euskal Konfederazioak orain bi urte jarri zuen martxan Iparraldeko Herriko Etxeetan euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko ekimen hau. Langileak prestakuntza plan batean sartuta herritarrei Herriko Etxeetan euskarazko zerbitzuak izateko aukera ematea (idatzizko eta ahozko harremanetan, dokumentu, abisu eta ospakizunetan) eta Herriko Etxeekiko konpromisoa hartuta euskara ofizial egitea, horiek dira asmoaren helburu nagusiak.

Politikaren eta administrazioaren parametroetan Iparraldea Frantzia izaki, erdal hizkuntza hori ez dakigunontzat itzulpen zerbitzua prestatu zuten Azkainen. Horrela bada, makina bat komunikabide, elkarte eta udaletako ordezkariak, eta orobat, Azkaine eta inguruko herritarrak, ehun bat lagun orotara, karpa txiki batean elkartu ginen. Hizkuntza guttitiuen erabilera tokiko administrazioetan izenburupean mahai-inguru aberatsa bildu zuen Euskal Konfederazioak Azkainera, gaia bat eta bakarra bazen ere, hizlariak errealitate askotarikoa ekarri baitzuten. Alsaziako, Britainiako eta Herrialde Katalanetako hautetsi eta kargudunek beren herrialdeetan hizkuntzaren normalizazioari nola egiten dioten aurre azaldu zuten. Eztabaidan argi geratu zen borroka bertsuak daudela alde guztietan. Han ginen, euskaldunak, katalanak eta hizkuntza gutxituak berpizteko bidean lana erruz egiten ari den beste hainbat jende.

Europako Batasuna sortu aurretik hainbatek uste zuen herrien arteko mugak ezin igarozko lerroak zirela, herrialde baten nortasuna bereizten zutela. Mugak kendu eta herrialde asko zurtz geratu dira, estalkirik gabe, inguruko joan-etorrietatik babesteko ezkuturik gabe. Azkainen ikusi nuen mugak garrantzia handia duela, iparra eta hegoa bereizten dituela, mendebaldea eta ekialdea bere lekuan jartzen dituela. Askorentzat nortasun zeinu ere badela ikusi nuen, lurraldearen geografia-esparrua markatzen duen neurrian. Baina Azkainen ikusi nuen, Euskal Herrian bezala, Katalunian eta Frantziako zenbait eremutan hizkuntzak bereizten dituela herrialdeak. Hizkuntza eta hizkuntza horrek hiztunengan sortzen duen sentimendua direla herrialde baten nortasunaren habeak.

Ainhoa Lendinez

Kexak.....	5
moTz MotZ.....	8
kuLtUra.....	15
kiROlak.....	16



## MIKEL ARANZAMENDI, EZ DUZU NIRE MESPRESUA ERE MEREZI

1) Ja, ja, ja, ja... zure eskutitzak parregurea eragin dit. Nolatan duzu horrelako eskutitz bat idazteko lotsa gutxi. Ematen dituzun datuak ez dira benetakoak ezta zuzenak ere, kultur ideologia oso eskasa duzula erakusten duzu. Eskutitz pobrea da eta gainera, zeinen arrazista zaren erakusten duzu bertan. Horretaz aparte, ezagutzen ez dituzun pertsonak sartzen dituzue tartean eta zure ondorio propioak aterata.

2) Lehenengoz, anarkismoa errespetuarekin nahasten duzu. Komentario hau nik kristauei buruz esaten dudanagatik egiten duzula imajinatzen dut. Hortaz, errepublika garaian abesten genuen abesti baten berri emango dizut. Horrelako zerbait dio: "Si los curas y monjas supieran las ostias que les vamos a dar, saldrían corriendo gritando; libertad, libertad, libertad".

3) Gero ni Euskadin 1976tik bizi naizela diozu. Ez da egia: nire lehenengo urteak Burgosen (España) igaro nituen. Gero euskaraz berba bat bera ez dakidala diozu eta ez dudala euskaraz eta euskal kulturaren integrazteko inongo ahaleginik egin. Gezurra. AEKko examinak pasa eta gero, 3. mailako examina egiteko maila nuen. Beraz, hitzen bat jakingo dut. Pena da klaseetara joateko denborarik ez izatea. Honetaz aparte, Euskal Herriko kulturaz aipa dezaket aureskua gizonek emakumei dantzatzeko zietela ondorengoak eskatzeko. Eta orain zuek Arzallusi dantzatzeko diozue eta ezjakina bera, "viene criatura" esaten du telebista aurrean (pozik jarriko da Zapaterok 2005erako ezkontzen lagako diola jakitean)

4) Eta Anarkoaren Eguna noiz ospatu da ba? Ba al dakizu Anarko eta Anarkismoaren arteko desberdintasuna zein den, akaso?

5) Ekintzei buruz esan, Gazte Asanbladak egiten dituela, sistema asanblearioa erabiliz (dudan jartzen dut zuk zer den jakitea). Asanbladaren %99a euskalduna da. Inoiz idatzietan gaztekeraz euskaraz baino gehiago idatzi baldin bada, %99ak gutxiago lan egin duela esan nahi du. Dena dela, euskaldunak ez direnek ezin al dute informaziorik jaso?

6) Udaltzainei buruz ez zaizu arrazoirik falta, ez da beraiekin hitz egin behar. Are gutxiago azken aldiran darabilten harrokeriarekin. Zalantzan jartzen dut zuk diozuna esan nuenik. Ziurrenik galegoz berba egiten ez zuela jakinda ondorioztatuko nuen eta euskara menperatzen ez dudanez, ba al dago elkar ulertzeko modu hoberik biok ezagutzen dugun hizkuntza batean aritzea baino?

7) Barne espainiarra dudala eta ardi gorri horia naizela diozu. Goragoko maila batean dagoen arraza bateko partaidea zarela uste al duzun galdetzen diot nire buruari. Indiferentzia berdina adierazten dut bandera gorri hori edo ikurriña katoliko eta "arrazista"ren aurrean.

1. oharra: Ea hurrengoan zure buruaren berri ematen duzun. Erakutsi duzun pentsaerarekin ziur aurpegia "pasamontañas" atzean ezkatututa idatzi duzula eskutitza eta zure letra igar ez dadin ahaleginduz.

2. oharra: Asmakizun bat jarriko dizut zure adimena bizkor dezazun. Lagunen batek hitzez hitz itzul diezazula, trukua baitu: "Oro parece, plata no es, ¿que es?"

Arraza bakarra: gizakia / Aberri bakarra: mundua

Osasuna eta anarkia kamaradak

Sergio Fernandez Picon - 15.383.713.W

## KIMETZ ELKARTEAREN OHARRA XX. NAHASTE BORRASTEAREN INGURUAN

Kimetz Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie XX. Nahaste Borraste aurrera ateratzeko laguntza eman duten guztiei, dela trofeoak emanez zein laguntza ekonomikoa emanez, eta barkamena eskatu Pitxintxu liburu dendakoei beraiek eskainitakoa zelako txapeldunari eman zitzaion txapela eta sari ematean esan gabe gelditu zelako.

Kimetz Elkarteak

## ESKERRAK

Txusko Moto Klubari eta joan zen zapatuan, hilaren 3an, Idotorbe-San Pedrorra igo zineten guztioi, eskerrik zintzoenak eta besarkada indartsu bat Alvarez Arriola familiakoentz partez. Zoragarriak zarete guztiok

Andrea Arriola - DNI: 15.374.088 Za

## EZKERTIAR ABERTZALE GUZTIEI

Gutun honen bitartez Elgoibarko ezkertiar abertzale guztiak gonbidatu nahi ditugu uztailaren 13an, asteartean, arratsaldeko 19:30ean Kultur Etxeko Hitzaldi Gelan izango den Herri Batzarrera.

Atzean utzi ditugu Europako Hauteskundeak eta bertan izandako emaitza oso onak. Orain, merezitako atsedena hartu eta gero, hauen balorazioa aurkeztuko dugu. Honetaz gain, aurrera begirako urratsak ere aztertuko ditugu Asanbladan, hurrengo urteetarako norabidea gure artean finkatuz. Horrexegatik, aztertuko diren gaien garrantzia ikusirik, ezinbestekoa da zure parte hartzea. Bertan elkar ikusiko dugulakoan agurtzen zaitugu.

Juan Karlos Marcos - EHNA A5551084B  
Elgoibarko Ezker Abertzalearen izenean

ASTEKARIA

# BARREN

Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12  
Publizitatea:  
☎ 943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04  
E-posta: barren@topagunea.com  
Helbide informatikoa:  
www.topagunea.com/barren  
ARGITARATZAILA: Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edure Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburitik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.220 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

 Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

 KEXAK

◆ Herritar batek ondorengo kexa helarazi digu. **Hauteskunde kanpainan, Aralar Alderdi Politikoaren kartelean jarritako “Colaboracionistas!” pegatina onartezina iruditzen zaiola** kontatu digu: “Argazki hau Netoko aparkalekuan hartuta dago. Ni ez naiz alderdi horretakoa, baina onartezina iruditzen zait, nazkagarria. Ez nuke nahi bizi pegatina hori ipini dutenek gobernatutako Euskal Herrian, ez baitute askatasunean sinisten”.



?

 GALDERAK

◆ Emakume batek ondorengo galdera luzatu digu Barrenera: **San Roke eta Arregitorreko etxe berrien artean eskailera mekanikoak egin beharrean, zergatik ez dute ranpa mekanikoa egiten?** Beste herri batzuetan hasi dira honelakoak egiten, eta askoz erosoagoa da erosketen karroa edo umearen aukiarekin igotzeko. Hirigintzakoekin hitz egin dugu, eta esan digutenez, honelako galderak idatziz planteatu behar dira udaletxean, eta ez digute erantzunik eman”.



◆ **Santa Klara 20 eta 22ko bizilagunek beraien etxe aurrean baldosak puskatuta daudela** esan ziguten duela hilabete inguru. Udaletxetik, autoek puskatzen dituztela esan diete, eta zona horretan autorik ezin omen da sartu, oinezkoen bidea delako. Bizilagunek, oinezkoen bidea dela adierazten duen seinalea jartzeko eskatzen dute: “Beti aparkatu ditugu autoak etxe aurrean, eta orain oinezkoentzako lekua dela esaten digute udaletxetik. Han ez dago hori adierazten duen seinalerik, beraz, hori egia bada, lehen bailehen ipini dezatela, bestela jendeak autoak bertan aparkatzen jarraituko du, eta baldosak beti puskatuta egongo dira”.

 TXALOAK

◆ Herritar batzuk **San Pedroko motokrosaren antolatzaileak txalotu nahi dituzte:** “Asko gustatzen zaizkigu honelako ikuskizunak, eta oso ondo pasatu genuen. San Pedro jendez gainezka zegoen, eguraldi bikaina egin zuen, eta izugarri disfrutatuko genuen”.



Behin futbola amaituta, Frantziako Tourrak hartzen dio lekukoa kirol eskaintzari uztailean. Euskal Herrian txirrundulari zaletasuna ikaragarria da eta euskaldunak erruz ikus daitezke Piriniotako errepide bazterretan. Gainera, Euskaltel-Euskadi taldea sortu zenetik errazago antzematen dira, "marea" laranja nagusi baita. Erreportaje honetan zaletuok izango ditugu hizpide. Urtero-urtero Piriniotako zitarekin hutsik egiten ez duten bi txirrindu zale elgoibartarrekin berba egin dugu.



# Alez, Alez

Aitor Romera 1989an joan zen lehen aldiz Tourra ikustera. 12 urte besterik ez zituen eta aitarekin batera joan zen autobusean. Harrezkero gutxitan huts egin du. Tomas Salegi 1990. urtean joan zen estreinako aldiz, urteren bat edo beste huts egin du honek ere, baina gehienetan joan izan da. Lana badute jai hartzen saiatzen dira. Piriniotara joaten dira normalean, gertuago baitaude, baina Aitor birritan izan da Alpeetako etapak ikusten. Tomas, behin izan da, baina datorren urtean ere joateko asmoa du.

Aurten bi etapa ikustera joateko asmoa dute. Lehena uztailearen 16an, barixakuan, La Mongie/Tourmalet mendate mitikoan amaituko dena eta bigarrena uztailearen 17an, zapatuan, Lannemezan eta Plateau de Beille bitartean izango dena.

## Hamarretik zazpi euskaldunak

Telebistatik Tourra jarraituz gero, ikurrinez eta euskaldunetz josita ikusi ohi ditugu errepide bazterrak. Kamara aurrean jartzeko dohainak ditugulako izan daiteke, baina Tomas eta Aitorrek ziurtatu digutenez hamarretik zazpi euskaldunak dira azken urteotan. "Euskaldunak helmuga inguruan pilatzen dira batez ere. Frantsesak ere asko izaten dira, baina isilagoak dira eta gutxiago nabarmentzen dira" esan digu Aitorrek.

## Giroa

Ez italiarren Giroa, euskaldunek Tourrean sortzen duten "giroaz" ari gara. Jendea nola preparatuta joaten den ikustea ikuskizun bat dela azaldu digute Tomasek eta Aitorrek, "hango autokarabanak, kanpinak, barbakoak, txiringitoak, etab ikustekoak dira". Tomasek iaz jaso zitzaiona gogoan du, "Luz Saint Sauvereko kanping guztiak beteta zaudenez, lautadaxto batean geratu nintzen eta handik ordu erdira 3 autobus eta kamioi bat agertu ziren. Kamioitik sukalde industrialak atera, argiak ipini, musikarentzako bozgorailuak, kanping dendak jarri eta goizaldeko 5:00ak arte han ez zegoen lorik egiterik, izugarizko ambientea jarri zuten. Oñatiarrak ziren. Aurten ere lau autobus bete dituztela uste dot".

## Euskaldunak kanpinetan

Jendetzaren artean euskaldunak identifikatzea erraza dela diosku Tomasek, "arropegatik edo mahai inguruan eserita daudelako igartzen da". Adin guztietako zaletu euskaldunak aurki daitezke Tourrean, baina gazteak ei dira nagusi. "Gehienak kanpinean joaten dira. Kanpokoak, berriz, zahartxoagoak izaten dira eta frantsesak eta alemaniarrek esaterako, asko mugitzen dira autokarabanetan. Azken aldirian estatubatuarrak ere erruz ikusten dira. Italiarrak aldiz, gutxiago nabari dira Bugno eta Chiapucci erretiratu zirenetik".



# Euskaldunak!

Le  
de TOUR  
FRANCE

## Bezperan mugitu behar

Piriniotako etapa bat ikustera joateko egun bat lehenago joatea komeni da, errepideak itxi egiten baitituzte. Beste aukera bat autoa behean laga eta goizean oinez edo bizikletaz igotzea izaten da, askok egiten duten moduan. Lekua hartzeko borrokatu beharra izaten da eta lekurik onenak hiru egun lehenagotik hartuta egoten dira.

## Telebistaz ikusi ezin daitekeena

Inoiz Tourreko etapa bat ikustera joan ez denak pentsa dezake, horrenbeste kilometro bidaiatzeak ez duela merezi telebistaz lasai asko ikusi daitekeenean. Are gehiago, txirrindulariak segundo gutxi batzutan eta ozta-ozta ikusten direla jakinda. Tomasek bakoitzak bere afizioak dituela dio, “Ni adibidez ez nintzateke Portugaleraino futbola ikustera joango”. Aitorrek telebistaz jarraitzea ez dela berdina azaldu digu, detaile asko galtzen baitira. “Telebistaz lehenak bakarrik ikusten dituzu eta zuzenean lehenengotik azkeneraino. Bertatik bertara gainera, askoz gehiago igartzen da txirrindularien sufrimendua eta egin behar duten esfortzu ikaragarria. Eta nahi izanez gero, edozein lekutara eraman daiteke telebista txiki bat”

## Ordu hil gutxi

Aspertzeko astirik ez omen dela egoten azaldu digu Aitorrek, “Goizean buelta bat eman dezakezu, helmugaraino igo edo bestela zerbait jan, edan, eguzkia hartu, telebista ikusi, e.a. Eta geldik egonda ere ez dago aspertzeko aukerarik. Aurretik pasatzen den jendeari begira diberti zintezke eta ziur ezagunen batekin topo egingo duzula. Mozorrotzea ere modan dago eta beti dago giroa alaitzen duen pertsonaiaren bat edo beste”. Tourraren karabanak egonaldia atseginagoa egiten laguntzen duela gaineratu du Tomasek, “txirrindulariak heldu baino ordu eta erdi lehenago hasten da eta urterokoa izan arren, entrenigarria izaten da”.

## Etapa ahaztezina

Tomasek Indurainek 91n lehen Tourra irabazi zueneko etapa bat du gogoan, Chiapuccirekin batera ihes egin zueneko, alegia. Aitorrek, berriz, Otxoak irabazi zuena. Euri asko egin zuen eta ikusgarria izan zen txirrindulariek egin behar izan zuten esfortzua. Egonean egoteko gogorragoa da euriarekin, baina ikuskizun gisa politagoa da. Mendiko lehen etapak ere hobeak dira, gehiagotan apurtzen baita lasterketa eta txirrindulariak banan-banan ikusteko aukera gehiago izaten da”. Faboritoei buruz galdetean biak datoz bat, Tourra Ullrich alemaniarrek irabaziko du eta euskaldunik onena, berriz, Aimar Zubeldia izango dela uste dute. Ikusi egin beharko dugu, batzuek telebistaz eta beste batzuek bertara joanda.



## Gipuzkoako Batzar Nagusiak ospatu ziren Elgoibarren uztailaren 2an

140 milioi euroko inbertsio plana onartu zuten

**J**oan zen ostiralean Gipuzkoako Batzar Nagusiak ospatu ziren gure herrian. Duela 23 urte ospatu ziren azkeneko Elgoibarren Batzar Nagusiak, eta sekulako ikusmina piztu zuen herritarren artean. Jende ugari gerturatu zen Plaza Handira, Gipuzkoako Diputatuei ongi etorria egitera, eta Haritz Dantza Taldeko Ion Lizarralde dantzariak, aureskua dantzatu zien.

Eguerdiko 12:00etan hasi zen Osoko Bilkura, udaletxeko Pleno Aretoan. Marivi Agirregomezkorta Elgoibarko alkatea, Leire Ereño Batzar Nagusietako lehendakaria, Jose Maria Oruesagasti (EAJ) lehendakariordea (EAJ), Rafaela Romero (PSE-EE), Estanis Etxeberria (EAJ) eta J.Carlos Cano (PP) eseri ziren mahai nagusian. Guztira 49 diputatu bildu ziren Batzar Nagusiko Osoko Bilkuran.

### 140 milioi euroko inbertsio plana

Gipuzkoako Batzar Nagusiak 2004-2007 urte bitarteko inbertsio plana onartu zuen. EAJ, EA, PSE-EE, IU eta Aralarren planaren aldeko botoa eman zuten, eta PPK ez zuen botorik eman. 41 baiezko eta 8 abstentzio izan ziren.



*Jon Lizarralde aureskua dantzatu zien agintariei. Eskuineko argazkian Ezker Abertzalekoen aldarrikapena.*



### Ez apartheid

Diputatuak iristen ziren bitartean, ezker abertzaleko zenbait kidek “Ez apartheid, autodeterminazioa” lelopean, pankarta bat ireki zuten Plaza Handian. Manifestaldi isila izan zen, eta ez zen inolako istilurik sortu.

140 milioi euro inbertituko dira guztira Gipuzkoan. Besteak beste, Kultur eta kirolguneak, zaharren etxeetan adineko pertsonentzako plaza berrien sorrera, gizarteratzeari bultzada berria ematea eta errepideetako azpiegiturak hobetzeko erabiliko da diru hori.



## 43 lagunek hartu zuten parte Manu Alvarezen omenezko motokrosean

**J**oan zen asteburuan bukatu ziren San Pedro auzoko jaiak. Ekitaldi desberdinak izan ziren asteburu osoan zehar, besteak beste, motokrosa, bertso afaria, herri kirolak eta idi probak ikusteko aukera izan zuten bertara hurbildu zirenek.

Larunbatean 43 lagunek hartu zuten parte Manu Alvarezen omenez eginiko motokros txapelketan, eta hauen artean, bi elgoibartar zeuden: Gorka Garate eta Aitor Osoro. Eguraldi bikaina egin zuen larunbatean, eta ikusle mordoak bildu ziren San Pedron. Bi kategoria desberdin

bereiztu ziren: Batetik 125cc eta bestetik, 250cc. Lehenengoan Beñat Aginaga bizkaitarra izan zen garaile, eta bigarrengoan Francisco Urkijo. Aipatu beharra dago, Gorka Garate elgoibartarra hirugarren postuan sailkatu zela 250cc.ko kategorian.

Igandean herri kirolak, ahari jokoak eta idi probak izan ziren. 53 plazarekin Itziarko Lete izan zen idi probako irabazlea, bigarren postuan Frunizko Aurtenetxe anaiak sailkatu ziren 45 plazarekin eta hirugarrena, 39 plazarekin Etxeberriko Ezkutuzulo izan zen.



## Saharako bi haurrek Elgoibarren pasako dute uda

Uztaitetik irailera bitartean egongo dira beren herrialdetik kanpo

Azken urteotan bezala, aurtengoan ere Saharako umeak etorri dira Elgoibarko familiekin uda pasatzera. Bi haur izango dira gure artean, eta bi hilabete inguru pasatuko dituzte bertan. Mohamed, 10 urtekoa, hirugarren aldiz etorri da gure artera, eta aurtengoan ere, familia berak hartuko du etxean.

Beste haurra, Elgoibarrera iritsi zen egunean bertan, Laredora joan zen hemengo familiarekin eta bertan pasatuko du uda.

Saharako umeak hona ekartzeko tramite guztiak Frente Polisarioak Euskal Herrian duen ordezkartzaren bidez egiten dituzte. Ardura handia den arren, familiek ilusio handiz hartu dituzte umeak etxean.



## San Fermin Txiki Eguna ospatu zuten uztailaren 7an

Atxutxiamaika Aisialdi Taldeak antolatuta, San Fermin Txiki Eguna ospatu zuten herriko haurrek joan zen asteazkenean, uztailaren 7an, San Fermin Egunean. Ume guztiak zuriz jantzita eta zapi gorria lepoan zutela bildu ziren Plaza Handian. Goizeko 10:30ean Maddi Mendibilek pregoia irakurri zuen udaletxe azpiko arkupeetan. Ondoren, San Fermini abestu zioten bi aldiz, eta txapliguak bota ostean, zezenak atera ziren. Haur guztiak korrika hasi ziren zezenen aurrean. Plaza Handian hasi, eta San Bartolome kalea zeharkatu ostean, Errosario kaletik itzuli



ziren korrikalariak Plazara. Ondoren, zezentxo eta ponietan ibiltzeko aukera izan zuten. 12:30ak aldean bukatu zen ekitaldia, eta indarrak berritzeko txistor jana izan zen parte hartu zuten guztientzat.

## Merkatu Plazako dendariak 60 euroko 4 sari banatu dituzte



Hilabete honetan 60 euroko 4 sari banatu dituzte Merkatu Plazako dendariak. Mari Tere Zabala, Ines Altuna, Maria Jesus Alberdi eta Maria Pareja Dorado izan dira irabazleak. Saria erosketa txeketan jaso dute, eta Merkatu Plazako postuetan gastatu beharko dute. Datorren hilabetean, bi pertsonentzako bi afari zozketatuko dira.

## 50 urtetik gorako langabetuentzako Esperientzia Eskola egitasmoa jarriko du martxan Debegeak

Debegeak, Matia Fundazioarekin batera, Debarrenako Esperientiaren Eskola egitasmoa jarriko du martxan datorren urritik aurrera. Egitasmo hau 50 urtetik gorako lanik gabeko pertsonen zuzendua dago. Pertsonak helduak hezitzeko eta beraien artean esperientzia ezberdinak trukatzeko gune ireki bat sortu nahi da.

Bestalde, Esperientiaren Eskolak beste ekintza osagarri batzuk eskainiko ditu, besteak beste, hitzaldiak, beste eskola batzuekin elkartrukeak, jardunaldiak, irteerak eta ekintza kulturalak izango dira. Interesatuek uztailaren 19tik urriaren 8ra bitartean eman dezakete izena. Informazio gehiago; 943 82 01 10 telefonoan.



### I. URTEURRENA

2003ko uztailaren 6an, 70 urte zituela hil zen **BEATRIZ LÓPEZ PELAYO**ren oroimenez **URTEURRENEKO MEZA** izango da Sigmako elizan larunbatean, hilak 10, arratsaldeko 20:00etan. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



## Elgoibartarrak Frantziako Tourrari begira IGOKO AL DA EUSKALDUNEN BAT TOURREKO PODIUMERA?



**ELENA LARIZ**

10 urte, ikaslea

Uste dot baitez. Jausi egin zen, baina Mayok lortuko du podiumera igotzea. Guk behintzat animatuko dugu. Ez naiz sekula jun Tourrera, baina egunen baten jungo naiz.

**SUSANA ETXABE**

34 urte, administraria

Beste eguneko etaparen ostian, oso zaila izango da. Lehen senarrarekin joaten nintzen Tourrera, baina orain bakarrik joaten da eta ni semeekin gelditzen naiz. Umeak hazten direnean, denok joango gara.



**JOSE MARI SAN MARTIN**

39 urte, fresadorea

Mayok 4 minutu galdu zituen, eta zaila izango da. Armstrong, Ullrich eta Hamilton oso ondo dabilta. Betikuak dira faboritoak. Ez naiz sekula etaparik ikustera joan, baina telebistaz jarraitzen dot urtero.

**IÑIGO LAMELAS**

13 urte, ikaslea

Bai, denboria galdu zaban, baina Iban Mayo podiumera iritsiko da. Ez daukat faboritorik, ondiokan goiz da irabazlian izena esateko. Telebistan ikusten dot, mendiko etapak gustatzen jataz gehixen.



**IOSU IRIONDO**

24 urte, ikaslea

Ez dot asko jarraitu tourra, baina nigatik iritsi daitezela! Badakit Mayok eta Zubeldiak denboria galdu zebela, eta Armstrong oso ondo omen dao aurten ere. Ahal banu jungo nintzateke etaparen bat ikustera.

**ANTONIO RODRIGUEZ**

46 urte, ajustatzailea

Tourraren hasieran baietz erantzungo nuke, baina gaur duda handiak ditut. Hala ere, Mayok aukera handiak dauzka podiuma lortzeko. Nire gustukoa ez den arren, Armstrongek irabaziko du, oso indartsu dago.



Tel: 943 74 10 11

- ⊗ IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- ⊗ ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- ⊗ IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

**Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!**

*Zatuz informazio eske!*



# nola ALDATU diren gauzak!



**1996.** urte inguruko erretratu honetan, begira nolakoa zen argazkian ikusten dugun Madalako ingurune hau. Errezabal taberna ikusten dugu lehen planoan, baina honen aurretik beste taberna batzuk ere izan ziren leku honetan. Besteak beste, Tiburcio Beristainen taberna, Itziarko Alberdi anaiek izandakoa eta Otero gailegoena aipatu daitezke.

Errezabal aurrean dagoen estalpea, normalean aparkalekua izaten zen, baina herriko jai desberdinetan jantoki modura erabiltzen zuten Txarriduna jatetxeok.

Bestalde, garai hartako hainbat lantegi ere ageri dira erretratuan: Alkorta, Arriola, Ajubita anaiaik...

Argazkian ikusten dugun bidea, Azkoitira joateko errepide zaharra da. Gaur egun ere, bertan dago oraindik, baina bide berria egin zutenetik, oso jende gutxi joaten da hemendik Azkoitira.

Garai hartan ere, mugimendu handiko ingurunea zen hau.



**2004.** ko argazki honetan, zeharo aldatuta ikusten dugu paraje hau. Lantegi zaharrak eta Errezabal taberna zeuden tokian, San Lorenzo erreka pasatzen da gaur egun. Bestalde, etxe berri mordoak eraiki dituzte, eta denda asko ireki dira bertan. Bernardo Ezenarro kalea luzatu egin dute, eta argazkian ikusten dugu kale honen sarrerako bide gurutzia.

Gaur egun, herriko ingurune garrantzitsuenetakoa da hau. Mugimendu handiko zonaldea da, jende asko mugitzen da bertan, eta asteburuetan kanpoko jende mordoak biltzen da hemen. Aurrerantzean, etxe berri gehiago egingo dituzte, eta ingurune dotorea bilakatuko da.

Aurreko argazkian bezala, etxebizitza hauen atzeko aldean, Karakate mendia ikusten da. Urteak pasatu arren, honek ez du bere edertasuna galtzen.

Juanito Gorostiza

**Lanbroa**

**Gosariak  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7tik aurrera  
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8tik aurrera

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

**JOSE pinturak  
(Txema)**

Mota guztietako pintura  
eta enpapelatuak.  
Zoluak, moketak, sintasola,  
kortexoa, etab. jartzen dugu.

San Bartolome, 28-1 ezk · Tel: 943 74 12 55 · Mobila: 629 44 23 14

**Mañape taberna**

Orain astegunetan

San Frantzisko, 60



## Tailerreko Eskuliburu Teknikoa (Made in danobat)

*Elgoibarko Danobat Kooperatibaren 50. urteurrena dela eta, buruturiko ekitaldi, argitalpen eta ospakizunen artean, "Tailerreko Eskuliburu Teknikoa"ren aurkezpena izan zen ekainaren 12an.*

*Euskara Batzordeko kide diren Deñe Zabalo, Jesus Mari Astigarraga eta Larraitx Alkortaekin, euskarazko liburuxka hauxe izan dugu hizpide eta ondorengo kontaktu digute.*

**E**uskarazko eskuliburu tekniko bat sortzeko ideia aspalditik zegoen abian, euskarazko dokumentazio gehiegirik ez baitago lan munduan. "Danobaten 50. urteurrena zela eta, euskarazko liburu tekniko bat ateratzea pentsatu genuen. Proposamen hau, Euskara Batzordean aurkeztu ondoren, Kontseilu Sozialean eta Kontseilu Errektorean onartua izan zen eta hortik aurrera, buru belarri aritu gara lanean".

### Euskararen normalizazioa lan munduan

Helburua, tailerrean, bai bulego teknikoan, montadore nahiz mekanizadoreek, eguneroko kontsultak egiteko liburu bat izatea da. "Kalkulu batzuk egiteko, unitate batzuk aldatzeko ...

Azken batean, gure helburua euskararen normalizazioa lan munduan bameratzea da. Gainera, aipatu beharra dago, hona datorren jende gazteak euskara oso ondo menperatzen duela; guk hemen gaztelarazko tresnak dauzkagu eta baliabideak eta tresnak jarriz gero erabilera handitzeko pauso garrantzitsuak eman ditzakegula, horren adierazgarri da lan hau ere. Tresna honen bidez euskaraz lan egin nahi duenari lana errazten diogu. Honenbestez, hemendik zuzentzen da gure lana".

Edukiari dagokionez, liburuxka honek, gai oso desberdinak jasotzen ditu, oinarrizko kalkuluak, unitate aldaketak, materialen ezaugarriak, trigonometria, tolerantzia edo perdoiak, e.a. Alde elektrikoa ere badakar. Oro har oinarri bat eskaintzen du.

### Lan prozesua

"Eskuliburu hau burutzerako garaian, erreferentzi moduan hainbat liburu, katalogo, eskuorri erabili ditugu eta baita Danobateko arauetatik ateratako informazioa ere. Lan taldean, hainbat arlo edo departamentutako taldetxo bat hasi ginen lanean, eta poliki-poliki, beharrak hala eskatuta jende ugarik hartu du parte, eta ondorioz esan dezakegu modu batean edo bestean jende askoren laguntza izan dugula". Lan prozesuari erreparatuz, hasieran datu bilketa bat egin zuten. Hortik, aukeraketa bat egin ondoren, hautaturikoa formatu informatiko batetara pasa zuten. Jarraian, dokumentazio guztia euskaratu eta segidan maketazio lana burutu zuten. "Aurkitu dugun oztopo edo zailtasunik handiena, egunero gaztelaraz erabiltzen diren hitz teknikoak modu egoki eta ulertzeko era errazean euskaratzea izan da".

"Urte eta erdi eta ordu asko igaro ditugu liburuxka hau burutzen. Liburuxka hau Euskal Herrian ezagutarazteko saiakera batzuk egin ditugu, komunikabide ezberdinetara informazioa igorritz. Baita, erakunde publiko, eskola, bezero, hornitzaile eta interesa agertzen duten guztiei bidaliz ere. Nahiz eta euskararen egoera lan munduan orokorrean ez izan hain ona, gero eta enpresa gehiago ari dira martxan jartzen euskara plana eta ahalegina egiten euskarak presentzia izan dezan enpresako arlo guztietan: errotulazioa, inprimakiak, dokumentazioa, etab.". Euskararen normalizazioa hein handi batean, lantegiko tresnak euskaratzen direnean etorriko da. "Danobaten barruan jendeak onartu eta bere egin du euskara plan bat dagoela. Hainbat gauza euskaraz direla, hala izan behar dutela eta ahalegin bat dagoela".

### Lana, dedikazioa eta inplikazioa

Dagoeneko, kanpoko enpresetatik eskaerak jasotzen hasi dira. Bertako langileen artean ere banatu da liburuxka hau eta erabiltzen hasi dira. Orotara honelako eskuliburu bat egiteak, lan asko, dedikazioa handia eta jendearen inplikazioa eskatzen duela aitortu digute. Gisa berean, gustura daude egindako lanarekin.





### Farmazia - okindegia

EGUNEZ	GAUEZ	FARMAZIAK
9 Yudego	Yudego	<b>ESCALA</b> , Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
10 Etxeberria (Errosario kalean)	Zabaleta	<b>FERNANDEZ</b> , Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
11 Etxeberria (Errosario kalean)	Zabaleta	<b>ZABALETA</b> , Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
12 Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria	<b>OKINDEGIA</b> 11 <b>igandea</b> Doña Mercedes
13 Ibañez	Ibañez	
14 Bidasolo	Bidasolo	
15 Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria	
16 Zabaleta	Zabaleta	

### EuskoTren

#### DONOSTIA-BILBO

Egunero	Donostia AMARA	5.45	06.45...	20.45
Elgoibar	07.02	08.02...	22.02	

\* jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

#### MENDARO-ELGOIBAR

Egunero	Mendaro	07.50	08.50...	21.50
---------	---------	-------	----------	-------

### EuskoTren

AUTOBUSAK

#### BILBO-DONOSTIA

Egunero	Bilbo	06.00	7.00...	20.00
Elgoibar	07.23	08.23...	21.23	

\* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

#### ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan	Elgoibar	07.25	08.25	10.25...	21.25
-------------	----------	-------	-------	----------	-------

#### Jaiegunetan

Elgoibar	08.25	09.25	10.25...	21.25
----------	-------	-------	----------	-------

### ELGOIBAR

SIGMA ● ———— ● ARRIAGA

#### SIGMA - ARRIAGA

8:00	8:10
9:25	9:35
11:10	11:40
11:20	11:50
12:10	12:40
12:20	12:30
13:10	13:20
13:20	13:30
18:20	18:30
19:10	19:20

#### ARRIAGA - SIGMA

8:10	8:20
9:55	10:05
11:10	11:20
11:40	11:50
12:10	12:20
12:40	12:50
13:10	13:20
18:10	18:20
19:00	19:10

### OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emailak	943 74 39 36

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

### UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

### BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

### ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

### IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua	

Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73
El Correo Español	943 74 10 82
Zazpiki irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

## AMAIA REVERT

Soroslea



**"Jendeak ez du aintzat hartzen sorosleen lana"**

### Nola bizi duzu udako oporraldia ?

Lanean. Udako oporraldia lan egiteko eta diru pixka bat ateratzeko aprobetxatzen dut.

### Igerilekua ala hondartza nahiago ?

Igerilekua. Hondartzan ere egona naiz baina lan gehiago dago; igerilekuan dena errazago kontrolatu eta zaindu daiteke..

### Bikinia ala bainujantzia ?

Bainujantzia, erosoagoa delako.

### Sorosle on batek eduki beharreko ezaugarriak ?

Bere lana ondo egitea, arduratsua izatea eta jendearekin tratuan erraztasuna izatea.

### Zer egin behar da sorosle izateko ?

Sorosle titulua atera behar da. Honetarako froga batzuk gainditu behar dira. Batetik, alde teorikoa gainditu behar da, lehenengo sorospenak, alegia, eta bestetik alde praktikoaren barruan igeriketa frogak leudeke.

### Oro har, jendeak sorosleen agindu eta gomendioei jaramonik egiten al die ?

Ez. Normalean egun guztia jendeari gauza berdinak errepikatzen eta gogorarazten pasatzen dugu. Oro har, jendeak sorosleen lanari ez dio behar besteko garrantzirik ematen.

### Zein izaten dira behin eta berriz errepikatu behar izaten dituzuen gauzak?

Ezin dela bultzatu, saltorik egin ezta antxintxika egin ere. 3 hitz klabeak dira.

### Egoera larririk bizitzea egokitu al zaizu ?

Igerilekuan ez, baina, Debako hondartzan bai, duela sei urte sorosle titulua atera berria nuela. Bost urteko haur txiki bat ia ito egin zen, baina, bizkortzea lortu genuen. Momentu oso gogorra izan zen, baina nire burua frogatzeko baliagarri suertatu zitzaidan.

### Egia al da sorosleek asko ligatzen duzuela ?

Ez, topiko bat da. Denetarik dago eta baita ligatzen dutenak ere.

### Lanbide honen abantaila eta desabantailak ?

Niretzako abantailetakoa bat jendearekin lan egitea da, asko gustatzen baitzait jendearekin harreman hori edukitzea. Desabantailen artean, denak uretan ondo pasatzen ari diren bitartean, norberak lan egin behar izatea da.

### Mintxetako igerileku berriak zer eskaini dio Elgoibar bezelako herri bati?

Askok. Aisialdirako gune bat behar zuen Elgoibarrek. Gainera, eguraldia hala moduzkoa dagoenean ere, hortxe daukagu Mintxetako igerilekua.

Esther Gurrutxaga



**karkizano**

San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



San Bartolome, 18  
Tel. 943 74 08 49

**Iriondo** TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu  
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15



## "El señor de los anillos: las 2 torres" izan da 2003ko filmik ikusiena herriko Antzokian

Igande arratsaldetan, 19:30etako saiora joaten da jende gehien zinemara


**K**ultura Sailak Herriko Antzokiko zine komertzialaren inguruko hainbat datu helarazi dizkigu. Gauzak horrela, 2003. urtean zehar 15.986 pasa dira Herriko Antzokitik. Guztira 65 pelikula bota dituztela kontuan hartuz, bataz beste 245 ikusle izan ditu bakoitzak.

2003ko irailetik 2004ko ekainera bitarteko datuei kasu eginez gero, 15.317 ikusle izan dituzte Herriko Antzokiko zine emanaldiek, iaz baino 1.469 ikusle gutxiago.

2003. urtean jende gehien zinemara erakarri zuen filma "El señor de los anillos. Las dos torres" izan zen 724 ikuslerekin. "Harry Potter, camara secreta" izan zen bigarren filmik ikusiena 664 ikuslerekin eta "El señor de los anillos: el retorno del rey" hirugarrena 579 ikuslerekin. Ondoren "El Ultimo Samurai" (544) eta "La Pelota Vasca" (542) daude. Ikusle gutxien erakarri zituzten filmak, berriz, "Una de Zombis" (18) eta "Femme Fatal" (19) izan dira.

### Igande arratsaldeak eta zinema

Zinera joateko asteko egunei eta ordutegiari dagokienez, igande arratsaldeko (19:30) zine emanaldia da arrakastatsuen inolako zalantzarik gabe 2003an. 5.279 lagun izan dira egun eta ordu hau aukeratu dutenak. Igande gauekoa (22.15) 1.969 lagunek hobestu



*Bi super produkzio hauek izan dira jende gehien zinemara erakarri dutenak.*

zuten eta igande arratsaldeko haurren saiora, berriz, 1.934 lagun joan ziren. Beste muturrean, ostiraleko emanaldia daukagu, 1.169 lagun bakarrik joan baitira zinemara egun honetan. Dena dela, hilean behin antzerkia edo ikuskizun eszeniko bat antolatzen dela ostiraletan kontutan hartu behar da.

Azkenik, hilabetei dagokienez, 2003ko azaroa izan zen zinemasale gehien mugitu zituen hilabetea, 2.843 ikuslerekin eta alderantziz, ekaina eta iraila dira zinemara joateko hilabeterik kaskarrenak datuei kasu eginez gero.

### IKUSLE KOPURUA HERRIKO ANTZOKIAN

Urtarrila 2.168	Urtarrila 2.184
Otsaila 1.961	Otsaila 2.420
Martxoa 1.650	Martxoa 1.081
Apirila 1.735	Apirila 1.089
Maiatza 1.272	Maiatza 1.307
Ekaina 849	Ekaina 880
Iraila 942	
Urria 1.206	
Azaroa 2.843	
Abendua 1.360	



**CORDON  
VILARCHAO**

San Roke, 7 beheko  
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 modaleku  
Tel. 943 740 570

**DEKORAZIOA**

Karpo eta barneko estalera  
Zaluen kolokazioa  
Lakatuak: egur, aluminio, P.V.C.  
Pintura orokorra





**MEKANOSA**

Errosario, 30  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

## Joseba Zapirainek irabazi zuen San Migelgo II. Rallysprint-a

Jon Gonzalez elgoibartarra bere mailako onena izan zen

**E**txeberri eta Elgoibarko Santa Klara auzoen artean jokatu zen San Migelgo II. Rallysprint-a joan zen uztailaren 3an. Euskadiko Rallysprint txapelketako seigarren proba puntuagarria zen eta maila handiko parte hartzea izan zuen. Goi mailako auto gidariak ikusteko aukerak eta eguraldi onak erakarrita jende mordoak bildu zen errepide bazterretan. Lasterketari dagokionez, Joseba Zapirain eta Joxe Sevilla pilotu eta pilotu-lagun gipuzkoarrak izan ziren bizkorrenak. Seat Ibiza Kit-Car bat gidatuz 27:15 izan zen 10 kilometroko lau tramoak egiteko behar izan zuten denbora. Zapirain iazko Euskadiko Rallysprint txapelketako irabazlea da. J.B. Fernandez eta F.J. Alvarez bikote asturiarra sailkatu zen bigarren postuan, irabazlearengandik segundu bakar batera (27:16). Renault Clio bat gidatu zuten hauek. Hirugarren postua ere gipuzkoarrentzat izan zen, J. Zapiain eta J.L. Sarasola (Renault Megane) bikotearentzat, hain zuzen ere. Irabazlearengandik 28 segundora sailkatu ziren.



*Urriako errebuelta leku ezin aproposagoa izan zen rallysprint-a jarraitzeko.*

Txus Jaio, egungo Lur Gaineo Espainiako Rally txapeldunaren parte hartzeak ikusmin handia sortu zuen, baina ustegabeko 10. postuan sailkatu zen. Alokaturako Mitsubishi Evo autoarekin parte hartu izanak zerikusia izan zezakeen, baina dena dela, ikuskizun aparta eskaini

zuen markinarrak, makina bat “tronpo” egin baitzituen ikusleen gozamenerako.

Elgoibartarrei dagokienez, Jon Gonzalez eta Garikoitz Ulaziak parte hartu zuten eta lehenak bere mailako auto gidari onena izatea lortu zuen Renault 5 GT Turboa gidatuz.

## 15 emakume elgoibartar Iberiar Peninsulako mendirik altuenean izan dira



**I**beriar Peninsulako mendirik garaiena da Mulhacen bere 3.483 metroekin, eta 15 emakume elgoibartarrek badakite jadanik zer ikuspegi dagoen mendi honen tontorretik. Joan zen igandean, uztailaren 4an, lortu zuten tontorra egitea. Mulhacen-Veleta trabiesa osatu dute elgoibartarrek. Alpujarretatik igo ziren eta Sierra Nevadako eski estazio ospetsutik behera jaitsi ziren. Guztira 10 ordutako trabiesa interesgarria izan zela aitortu digute. Hiru mila metrotik gora denbora askoan ibili behar izanaren ondorioz, elur asko topatu zutela ere aipatu digute, baina udaberria atzeratuta zebilenez, loreen distira eta usaina lagun izan zituztela gaineratu digute.



## Egoitz Morak brontzezko domina eskuratu zuen Espainiako Judo Txapelketan



23 urtez azpiko Espainiako Judo Txapelketan parte hartu zuen Egoitz Mora judoka elgoibartarrak Madrilen, Mostoleseko kiroldegian, hain zuzen ere. Estatuko judokarik onenak elkartu ziren bertan eta lehen borrokaldian aspaldiko ezagun bat izan zuen aurrez aurre, Alvaro Redero, Valentziar txapelduna, alegia. Lehen konbate honetan finalera ailegatzeko aukera asko jokoan zeudela jakitun zen elgoibartarra, eta urduri atera zen Tatami gainera. Ez zuen zeukan dena

ematerik lortu eta borrokaldi guztian atzetik joan ostean galdu egin zuen. Ustegabeko porrotak eragindako atsekabea gaingitu ondoren, brontzezko domina lortzeko ahaleginean jarraitu zuen. Madrileko txapeldunordea eta Gaztela-Leongo txapelduna aise gaingitu zituen eta hirugarren eta laugarren postua erabakitzen zuen konbatean, Mario Brotóns, Valentziako txapeldunordeari irabazi zion. Honenbestez, brontzezko domina eskuratu zuen Egoitzek.

## Euskadiko Triatloi eta Duatloi txapelketak eskuratu ditu Iñaki Kondek aurten



Iñaki Konde triatleta beterranoak denboraldi aparta burutu du aurten eta distantzia ertaineko Euskadiko Triatloi eta Duatloi Txapelketak irabazi ditu bere mailan, 50 urtetik 60 urtera bitartekoen mailan, alegia. Urgazi Triatloi Taldeko kideak Ordizian irabazi zuen Duatloi Txapelketa eta Zarautzen, berriz, Triatloi Txapelketa. Distantzia olinpikoan jokatu zen Donostiako Triatloian ere parte hartu zuen joan zen ekainaren 27an, eta hemen ere bere mailako bizkorrena izan zen.

## Domeka honetan ospatuko da Arrantza Txapelketa Deban

La Union Ehiza eta Arrantzu Elkarteak antolatuta, Arrantza Txapelketa jokatu da uztailaren 11n, domekan, Deba Alamedan. Elgoibartarrei zuzendutako txapelketa izango da eta izena ematerako orduan hiru euro ordaindu beharko dira. Honez gain, beharrezkoa da itsasoko arrantza baimena edukitzea. La Union Elkarteak baimena ateratzeko aukera eskaintzen du. Izena emateko astelehen eta barixakuetan bertaratu beharko da elkartera (Kalamua kalea, 25) 18:00etatik 21:00etara. Informazio gehiago behar izanez gero 943 74 38 22 telefonora deitu edo launioncazaypesca@hotmail.com helbide elektronikora idatzi.

## Mendian Federatzeko azken eguna uztailaren 15ean izango da

Morkaiko Mendizale Elkarteak jakinarazten du uztailaren 15ean amaituko dela Mendiko Federatu txartela atera edo aldatzeko azken aukera. Federatu txartelak jasotzeko azken eguna, berriz, uztailaren 22an, izango da uztailleko azken astean itxita egongo baita elkarteko egoitza.

### Piriniotako irteera

Bestalde, oraindik lekua dago Piriniotako irteeran izena emateko. Anayet eta Telera mendietara izango da uztailaren 16tik 18ra bitartean. Autobusa arratsaldeko 18:30ean aterako da Plaza Handitik. Irteeraren prezioari dagokionez FEDME txartela duten bazkideek 60 euro ordaindu beharko dituzte. FEDME txartelik gabe 70 euro. Morkaiko bazkide ez direnek, berriz, 80 euro ordaindu beharko dituzte.



**Langai**  
Euskal Lan Zerbitzua

Gipuzkoako enpresak **programatzailea** behar du. **Erref. 162004004451**

Gipuzkoako enpresak **analista** behar du. **Erref. 162004004475**

Arrasateko enpresak **muntatzaile elektromekanikoa** behar du. **Erref. 162004003124**

Gipuzkoako enpresak **banatzailea** behar du. **Erref. 162004004532**

Gipuzkoako enpresak **promotorea** behar du. **Erref. 162004005240**

Gipuzkoako enpresak **erizain laguntzailea** behar du. **Erref. 162004005465**

Arrasateko enpresak **atezaina** behar du. **Erref. 162004005534**

Gipuzkoako enpresak **administraria**

behar du. **Erref. 162004005534**

Gipuzkoako enpresak **fresadorea** behar du. **Erref. 162004005395**

Mutrikuko enpresak **figeliteroa** behar du. **Erref. 162004005323**

Gipuzkoako enpresak **begiralea** behar du. **Erref. 162004005173**

Azpeitiko enpresak **pintorea** behar du. **Erref. 162004005198**

Hautagai moduan sartzeko eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauekako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

## Lana

### ESKAERA

◆ Emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. 10:30etik 17:30era, asteburak barne. **☎ 626 91 49 04**

◆ Emakumea adinekoak zaindu, etxeko lanak egin edo tabernetan ontziak garbitzeko prest. **☎ 660 91 94 23**

◆ Emakumea garbiketa lanetarako prest. **☎ 943 74 22 01/652 71 59 08 (Araceli)**

◆ 19 urteko bi neska ekainean eta uztailean lan egiteko prest. **☎ 676 31 65 90**

◆ Emakumea umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. **☎ 943 74 35 05**

◆ Mutila eraikuntza lanetarako prest. **☎ 662 07 83 52**

◆ Bi neska garbiketa lanak egin, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. **☎ 660 69 53 03 (Marta)**

◆ Bi mutil edozein lan egiteko prest. **☎ 665 74 12 80**

◆ Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. **☎ 680 74 40 50**

◆ Emakumea gaixoak zaintzeko prest. **☎ 943 17 28 96**

◆ Uztailean eta abuztuan umeak zaintzeko prest. **☎ 943 74 17 88 (20:30etik aurrera)**

### ESKAINITZA

◆ Emakumea behar da goizez bi ume zaintzeko. **☎ 679 35 54 86**

◆ Ondorengo lanpostuetarako jendea behar da: Garbiketa eta sukalde lanetarako pertsona bat, eta lorre zaintzarako beste bat. Atzeritarrak ere onartzen dira. Kurrikulurak bidali 166 posta kutxatilara (Ermua). **☎ 943 17 22 90**

◆ Kamareroa behar da. **☎ 943 74 10 12**

◆ Asteburu eta jai egunetan gasolindegian lan egiteko mutila behar da. **☎ 943 74 02 41**

◆ Mapfrek, Deba Behe bailaran duen sarea osatzeko komertzialak behar ditu. Formazioa eta babesa eskeintzen dizuegu lanbide hontan hasteko. Bidali zure kurrikuluma eta telefonoa **MAPFREra, estazio kalea 11-13, 20600 EIBAR.**

## Garajeak

◆ Garaje itxia behar da Elgoibarren. **☎ 610 33 81 71/943 17 28 68**

◆ Garajea salgai pista beltzean. Bi autorentzako lekua. **☎ 616 50 88 86**

◆ 2 marradun garajea alokatzen dut Santa Ana 2an. **☎ 615787857**

## Etxebizitzak

◆ Pisu salgai erdialdean. 3 logela, sukalde jangela, egongela. Berritua, altzariekin. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio ineresgarria. **☎ 661 42 60 77**

◆ Pisu salgai Santa Ana kalean. 2 logela, sukaldea, egongela komuna. 2 ganbara. Altzariekin. **☎ 665 70 30 24**

◆ Pisu salgai erdialdean. 3 logela, sukalde jangela, egongela. Berritua, altzariekin. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio ineresgarria. **☎ 661 42 60 77**

◆ 4 bungalow alokatzen dira Cadizen. Chiclana hondartzatik 3km.ra. 60 euro eguneko. **☎ 620 26 80 24**

◆ Benidorm. Apartamentua aokatzen da. **☎ 943 74 06 28**

◆ Pisu osatzeko pertsona bat behar da. **☎ 615 73 21 12**

◆ Bi emakume pisua hartuko lukete alokairuan Elgoibarren. **☎ 660792628**

◆ Apartamentua alokatzen da Alcoceberren. Hondartzako lehenengo ilaran. **☎ 630 570 563**

◆ Etxea osatzeko pertsona behar da. **☎ 615 76 55 15**

◆ Logela bat alokatzen da. **☎ 943 74 18 81**

◆ Pisu salgai Arregitorren, 3 logela, egongela, 2 komun eta ganbara. Berritua. Eguzkitsua. 92m<sup>2</sup>. **☎ 679 830 438**

◆ Bikoteak pisua hartuko luke alokairuan Mendaron. **☎ 669496173 (Miren)**

◆ Soraluzen etxea salga garajearekin. Berritua, altzariekin. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea. Alkoba, txokoa, entreplanta. Dena barruti komunikatua. 144m<sup>2</sup>. **☎ 656 780 748**

◆ Etxea alokatzen du Benidorm-en, Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua. **☎ 943 74 20 31/943 74 38 27**

◆ Etxea salgai San Frantzisko kalean. Eguzkitsua, 2 logela, egongela, sukaldea, komuna. Bizitzera sartzeko moduan. **☎ 699 29 36 13**

◆ Apartamentua alokatzen da Conilen (Cadiz). Bateles hondartzan. Iraileko bigarren hamabostaldian, urrian eta ondorengoetan. **☎ 943 81 23 65**

◆ Apartamentua alokatzen da Saloun, paseo maritimoan. Novelty eraikuntza. Aire egokitua, igerilekua eta garajea. Iraila, urria eta ondorengoak. **☎ 943 81 42 38/629 98 98 99**

◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. **☎ 636 22 31 42**

◆ Apartamentua alokatzen da Torreviejan. Igerilekua, hondartzatik 15 minutura. **☎ 628 58 45 35**

◆ Mendaron etxebizitza berria salgai. Garaje eta trasteroa. Altzariekin. Bizitzera sartzeko. **☎ 696 305 317**

## OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## Lokalak

◆ Gazte koadrila batek lokala alokatuko luke. Ez dadila oso garestia izan. **☎ 660 349 723**

## Partikularrak

◆ BKontabilitate eta finantza partikularrak jasoko nituzke udan. **☎ 650 624 188**

◆ Biologian lizentziatuak irakasgai denen partikularrak ematen ditu, 2. ESO-ra arte. **☎ 637 12 30 59**

◆ Euskara eta ingeles klase partikularrak ematen dira uztailean. **☎ 943 74 10 91 (Eider)**

## Salerosketak

◆ Bikitzeko kunak, Prenatal markako kotxe sila, eta autorako aulkak salgai. Koltsoiak, edredoiak, eta zakuak opari. **☎ 635 75 42 90**

◆ Ehiza txakurra, 5 urteko Brako alemana salgai. Galeperretan oso ona, oilagorretan ere ibilia. **☎ 686 48 10 68**

◆ Mendiko Grisley bizikleta salgai. Mendirako eta errepiderako gurpilak, eta bi kasko. **☎ 609 04 08 72 (Imanol)**

◆ Bi sofa salgai. 3 eta 2 lagunentzakoak. Horiak. Egoera oso onean. **☎ 665 73 46 37**

◆ Opel Astra GT 2.0i salgai. SS-AM **☎ 635 75 50 90**

◆ Egongelarako altzaria salgai. Urtebete dauka. Ekonomikoa, negoziagarria. **☎ 636 355 631**

◆ Bikitzeko kotxesila salgai. Inglesina marka. **☎ 636 129 543**

◆ Zaindu ezin dugunez, chow-chow txakur emea salgai. Urte eta erdi, pedigree, txip eta bakunatua. Prezioa erabakitzeko. **☎ 656 79 49 69 (Mari)**

◆ JVC bideo kamara digitala salgai. Estreinatuta gabe. **☎ 630 527 940**

◆ Peugeot 206 GTI autoaren muelle eta eskape hodia salgai. **☎ 696 89 60 88**

◆ Volkswagen Polo autoa salgai. SS-AC. 80.000 km. 700 euro. **☎ 635 20 88 87**

◆ Audi A4 1.900 TDI Quatro autoa salgai. Egoera oso onean. 70.000 km. 5 urte. **☎ 943 76 64 34 (Peli)**

## Bestelakoak

◆ Autokarabana alokatuko nuke abuztuan. **☎ 686 882 162**

◆ Bi txakurkume oparitzen dira. **☎ 660 511 781**



## Agurrak



♦ Zorionak **Asier**, gaur, hilak 9, 7 urte egin dituzulako. Familiakoen partez. Segi horrela mutil handi!



♦ Zorionak **Helene Alberdiri**, uztailearen 10ean, 5 urte beteko dituelako. Familiakoen partez, ondo pasa urtebetetze egunean.




♦ Zorionak **Mikel**, uztailearen 10ean, 6 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Borja eta Ignacioren partez.



♦ Zorionak **Oier**, uztailearen 7an urteak egin zenituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Nerea Babarriori**, hilaren 7an, 7 urte bete zituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Aitor Mancebori**, uztailearen 8an, 5 urte egin zituelako. Familiakoen eta bereziki, Ikerren partez.



♦ Zorionak eta muxu handi bat **Jurdanari**, igandean bi urte egingo dituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Lore Mendizabal**, atzo, hilak 8, 10 urte egin zituelako. Etxekoen partez. Segi orain arte bezain jator!



♦ Zorionak **Ana Babarro**, uztailearen 3an, zure urtebetetze eguna izan zelako. Familiako guztien partez.



♦ Zorionak **txirripitxi**, uztailearen 8an, lau urte egin zenituelako. Muxu handi bat guztien eta bereziki, Maialenen partez.



♦ Zorionak **Andrea**, igandean 8 urte egingo dituzulako. Familiakoen, Lurdes eta Juan eta bereziki, Mariaren partez.



♦ Zorionak **Itoiz**, gaur, hilak 9, 9 urte egin dituzulako. Familiakoen eta anai Urkoren partez.



♦ Zorionak **bikote bihurri!** Dagoeneko 2 urte haundi bete dituzue! orain bezain alai jarraitu eta muxu handi bat ikastolako laguntzaren partez



♦ Zorionak **Fernando eta Ainara** zuen ezkontza egunean. Familiako guztien partez.

## BEKAK

### Nekazaritza eta abeltzaintza

Gipuzkoako Foru Aldundiak, ezarritako ustiapenetan praktikak egin eta horrela haien kudeaketa ezagutu nahi duten nekazari gazteentzako prestakuntza-bekak antolatu ditu, 2003-2004 ikasturtean nekazaritza-ikasketak EAEn kokatutako Nekazaritzako Eskolaren batean amaitu dituztenentzako. Epea: uztaileak 15

### Merkataritzako aholkulari teknikoak

Gipuzkoako Industri, Merkataritza eta Turismo lurralde zentroak, merkataritzako aholkulari teknikoak prestatzeko 25 beka eskaintzen ditu. Beken onuradunek egin beharreko jarduerak merkataritzaren inguruko laguntza teknikoak eskaintzen duten kabinetetan edo merkataritza banaketan diharduten enpresetan egingo dira. Epea: uztaileak 21

### Ikerketa

Hirigintza, Lurralde Antolamendu eta Ingurumenaren arloan ikertzeko Lurralde eta Ikasketarako Euskal Eskolak (LHIEE) 5 ikerketa beka eskaintzen ditu: 9 hilabeteko taldeko ikerketa beka bat eta 12 hilabeteko banakako lau ikerketa beka. Epea: abuztuak 21

## JARDUERAK

### Let's Rock Jaialdia

Ostiral eta Larunbat honetan (uztaileak 9-10) Let's Rock Jaialdia ospatuko da Bilboko Kafe Antzokian. Bi egun hauetan zehar Chucho, Midlake, Tachenko, The Jeevas, Hoggboy eta Viriis taldeek joko dute. Kontzertuak 22:00etatik aurrera izango dira.

## LEHIAKETAK

### Argazkiak

Taranconeko Udalak XVIII. "Ciudad de Tranco 2004" argazki lehiaketa antolatu du. Egile bakoitzak gehienez ere gai bereko edo ezberdineko 3 argazki aurkeztu ahal izango ditu edozein teknika erabiliz, gardenkiak izan ezik. 2.300 euro saritan. Epea: uztaileak 31

### Bidai interesgarriak

Arrasate, Bergara eta Oñatiko Gazteentzako Informazio Bulegoek "Gomendatzen dizut..." Saria antolatu dute. Bertara oporrei, aterpetxeen inguruko gomendioei, hiri interesgarriei, deskontuetarako txartelen erabilerari... buruzko idazlanak bidali beharko dira. Saria: EAeko Nekazal turismoko etxe batean bi pertsonentzako egonaldia. Epea: irailak 24

### Ipuinak

Portugaleteko Udalak "Portugalete Uri Urena" XIV. Ipuin Lehiaketa antolatu du. Bertan edonork 16 eta 30 urte bitarteko idazleek har dezakete parte, kategoria bakar batean. Ipuinak originalak, norberak asmatuikoak eta argitaratu gabeak izan behar dute, euskaraz zein gaztelaniaz idatziak eta gaia askea izango da. Hiru sari nagusi eta bi akzesit. 4.000 euro saritan. Epea: irailak 27

## 9 BARIKAKUA

8:00 SAN FERMINETAKO  
ENTZIERROA ZUZENEAN  
Kultur Etxean



## 10 ZAPATUA

8:00 SAN FERMINETAKO  
ENTZIERROA ZUZENEAN  
Kultur Etxean

## 11 DOMEKIA

8:00 SAN FERMINETAKO  
ENTZIERROA ZUZENEAN  
Kultur Etxean

19:00 GELATXO ORKESTRAREKIN  
DANTZALDIA  
Plaza Handian

## 12 ASTELEHENA

8:00 SAN FERMINETAKO  
ENTZIERROA ZUZENEAN  
Kultur Etxean



## 13 MARTITZENA

8:00 SAN FERMINETAKO  
ENTZIERROA ZUZENEAN  
Kultur Etxean



## 19:30 HERRI BATZARRA

Kultur Etxeko hitzaldi gelan  
Antolatzailea: Elgoibarko Ezker  
Abertzalea

## 14 EGUAZTENA

8:00 SAN FERMINETAKO  
ENTZIERROA ZUZENEAN  
Kultur Etxean

ZINE  
kluba



## "Glup" (Euskaraz)

Marrazki bizidunak

Produktoreak: Irusoin, Dibulitoon Studio, ETB eta Planeta Junior. 70 min.

Erosi, erabili eta bota, hau da bizi garen munduan nagusi den filosofia. Dendak hustu ahala egiten dute gainezka zabortegiek. Fenomeno tamalgarri honen lekuko zuzena da Alicia gaztea, gurasoen jokamoldea honelakoxea baita. Zorionez, Tomas moduko gizonak dauden bitartean dena ez dago galduta. Txatarrero zahar bat da Tomas, eta berak erakutsiko dizkio Aliziari birziklaiaren onura eta sekretu guztiak. Gauzen benetako balioaz jabetzen ikasiko du eta bere eskuez gauzak konpontzen ere bai.

## BATZARRAK

### Herri Batzarra

Elgoibarko Ezker Abertzaleak Herri Batzarra antolatu du. Uztailaren 13an, martitzenean, izango da Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:30etatik aurrera. Gaiak honakoak izango dira; Europako Hauteskunde balorazioa eta aurrera begirako urratsak.

## LEHIAKETAK

### Margo Lehiaketa Mendaron

Mendaroko Margo tailerrak IX. Margo Lehiaketa antolatu du Udalaren babesarekin. Lehiaketa eguna irailaren 5ean, domekan, izango da. Gaia Mendaroko herriari dagokion zerbait izan beharko da. Lanaren zigiladurari dagokionez, euskarriak lehiaketa egunean 9:00etatik 10:ak bitartean markatuko dira Udaletxeko sarreran. Euskarriak aurrez prestatuak eraman daitezke, baina ez da onartuko marrakzi, zirrimarra edo marra aztarrenik edukitzea. Lanak udaletxeko sarreran aurkeztuko dira, 15:00etatik 16:00etara bitartean, egilearen xehetasunak dituen kartazalarekin batera. Xehetasun edo informazio gehiago nahi izanez gero, Mendaroko Kultura Sailera jo. Telf: 943 03 32 82. E-posta: kultura@mendaro.net



zine

KARTELDEGIA

### ELGOIBAR, Plaza Handian

#### “Cachorro”

9, barixakua: 22:15

#### “Glup” (Euskaraz)

10, zapatua: 22:15

#### “El Gato”

16, barixakua: 22:15

### EIBAR, Unzaga

#### “Van Helsing”

9, barixakua: 19:30-22:15

10, zapatua: 17:00-19:30-22:30

11, domekia: 17:00-19:30-22:30

12, astelehena: 19:30-22:15

13, martitzena: 19:30-22:15

14, eguaztena: 19:30-22:15

### EIBAR, Rialto

#### “La matanza de Texas”

9, barixakua: 19:30-22:15

10, zapatua: 17:00-19:30-22:30

11, domekia: 17:00-19:30-22:30

12, astelehena: 19:30-22:15

13, martitzena: 19:30-22:15

14, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litekeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



## “Cachorro”

Zuzendaria: Miguel Albadarejo.

Antzezleak: Jose Luis Garcia Perez, David Castillo, Diana Cerezo.

Violetak Indiara bidaiatzen duen senargai berria lagun duela eta bederatzigarren urteko Bernardo semea Pedro anaiaren zaintzan lagako du. Dentista homosexual erakargarria da Pedro, orain arte bere buruz bakarrik arduratu behar izan duena. Ardura berriek gauza asko irakatsiko dizkiote eta ustekabeko askori aurre egin beharko die; eskola, hezkuntza, etab.

ZINEA





# A

ste honetako erretratu zaharra **Xabier Galdosek** laga digu. 1959. urtean Arrasateko pilotalekuan jokatu zen Debarroko Pilota Txapelketan ateratako argazkia da. Urte honetan hartu zuten parte lehenengo aldiz Baltasar Pilotazale Elkarteko pilotariak, izan ere, aurreko urtean, 1958an, sortu baitzen Baltasar Pilotazale Elkartea. Txurruka eta Alonso elgoibartarrak izan ziren txapelkunak, Oñatiko Azpiazu eta Oregi bikotea gainditu ostean. Garai hartan pil-pilean zegoen pilota gure herrian, eta makina bat txapelketa irabazi zituzten pilotari elgoibartarrek. Gogora ditzagun zein diren argazkian ikusten ditugun pilotariak.

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: **Sabin Arakistain**, **Rufino San Martin** "Soarte", **Jose Alonso**, **Jose Antonio Alzibar** "Akabarro" (†), **Sabin Txurruka**, **Ildefonso Ansola** (†), eta **Angel Astigarraga** "Elosu" (†).

Behean, ezkerretik eskumara: **Santi Kortaberria** (†), **Gerardo Garate** (†), **Gillermo Regil** eta **Xabier Galdos**.



## I. URTEURRENA

2003ko uztailaren 6an, 24 urte zituela hil zen  
**JON ANDONEGI AMESTI**ren oroimenez  
**URTEURRENEKO MEZA** izango da San Bartolome parrokian  
igandean, hilak 11, eguerdiko 12:30etan.  
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



# BASKO RENT


GARBIKETA  
MANTENIMENDUA  
AUTOEN ALOKAIRUA

Tel.: 902 103 287

Sigmako Industrialdea - 7 eta 8 pabiloiak

**MANTENDU EZAZU  
ZURE AUTOA  
GARBI ETA PREST!**

**KONPONKETA TAILERRA**



MANTENIMENDU OROKORRA  
OLIO, BALAZTA eta PNEUMATIKOEN ALDAKETA  
BARRUKO GARBIKETA INTEGRALA

**GARBIKETA AUTOMATIKO  
PUBUKOA**



**ESKAINZA BEREZIA:**  
PNEUMATIKOAK 4 X 3  
3 ORDAINDU ETA 4 JARRIKO DIZKIZUGU



**Firestone**

**GOOD YEAR**

# ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Kotxerako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



**ORDUTEGIA**

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**

Tel. 943 742 720  
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behe**

(San Andres pasealekutik)  
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR





Hidromasajea adituak



Altzariak estilo guztietan

# GOKI ERREFORMAK

**Olaso Poligonoa, 15**  
**68 pabilioia**  
**20870 ELGOIBAR**



**Tel.: 943 74 28 80 - 943 74 42 23**

**943 74 46 40**

**Faxa: 943 74 45 87**



Bainurako  
osagarrietan  
aukera  
zabala

Ateekin ere lan egiten dugu

